

Irakeko Kurdistan

Zaila eta etsigarria da askotan demokraziarako bidea. Eta are zailagoa, eta etsigarriagoa, mendeetan justizia izpirik ikusi ez duen herri batentzat. Bide luze eta ezezagunari ekin diote kurduak orain, ez baitago Kurdistanera iristen den bidezidorrik.

Argazkiak eta testua:
KARLOS ZURUTUZA

BANGLADESH-TARREN LEGIO BATEK inbaditzen ditu gauero Arbil-go kaleak. Laranjaz jantzita doaz denak, eta Kurdistanango hiriburuko erdigunea garbitzen dute euren erratzaz eta esku biluziez. Lan benetan nekeza da hau, bazar nagusiko postuak itxi ostean ugariak baitira lurtean utzitako plastikoak, janari-kondarrak nahiz beselako hondakinak. Irango arropa merkea, Siriako olibak, Turkiako bananak... Atzerriko produktuak beti; Irakeko Kurdistanen porlana besterik ez da ekoizten. Tamalez, milaka tona behar dira herrialdea berreraikitzeko eta, noski, berreraikitakoa harresiz babesteko. Ezin ahaztu, autoz Bagdad hemendik hiru ordu eskasera dagoela, eta Mosul, 50 minutura baino ez.

Bangladesh-ko etorkinek euren etxeetara deitzean, Irak iparraldean daudela esango diete senideei, baina “lasai egoteko”, herrialdeko eskualde seguruen delako eta. Konferentziak hain garestiak ez balira, zera azalduko zieten etxekoei: Kurdistan ez dago mapetan, baina jada 16 urte egin ditu herrialde gisa, Bagdadeko kontrolpetik at, eta bomba autoetatik urruti. “Badaude, antza, Irakeko Kurdistan baino toki okerragoak bizitzeko” pentsatuko dute Arbildarrek laranjaz jantzitako garbitzaileei erreparatzean. Eta arrazoi dute.

Hausturak eta loturak

Kurduak diote bizilagun txarrak izan dituztela beti, hamaika traizio jasan dituztela historian zehar, mendiak baino ez diela babes eskaini... Aldi berean, saminez onartzen dute turkiar, arabiar edo pertsiarren kontra borrokatu ez ezik, elkarren kontra ere borrokatu izan dutela. Iraken, kurduen arteko barne hausturak goia jo zuen 90eko hamarkadan: lau urtez luzatu zen KDP(Kurdistango Alderdi Demokratikoa) eta PUK(Kurdistango Abertzaleen Batasuna) alderdien arteko gatazka armatua. 98an bakea



sinatu zenetik, talde bakoitza Irakeko Kurdistanango zati baten jabe izan da. Massud Barzani liderraren KDP alderdia mendebaldean da nagusi, eta Jalal Talabaniren PUKa, berriz, hego-ekialdean. Nolanahi, 2005ean aurrerapauso handia egin zen, hauteskundeetara deitzean. Kurdistanango norantza ebatzteaz gain, Irak osoarena ere erabaki zuten kurduak: Masud Barzani Irakeko Kurdistanango presidente hautatu zuten, eta Jalal Talabani, Irakekoa.

– PUKak KDPak baino 150.000 bozka gehiago ateratu zituen Kurdistanango eskualdean, baina hau *off the record* esaten dizut –aitortu du Yezidi Arazoetako ministroa den Mahmud Idok–. Irakeko kurduen arteko batasuna



etzarako bide luzean

Bandera kurdu bat Arbilen, Irakeko Kurdistango hiriburuan.

lehentasuna genuen eta, zorionez, akordio batera iritsi ginen. Irakeko egoera larria dela eta, datozen urteetan elkarrekin gobernatzea erabaki dugu. Kurdistango etorkizuna KDP edo PUK alderdiak baino garrantzitsuagoa dela iritzi dugu denok.

Mahmud Naz Cityn instalatu da berriki, Arbilgo kanpoaldean gobernukideentzat eraiki berri den auzoan. Parkinean, 4x4etako gidariak segurtasun guardiekin solasean orduak ematen dituzte, euren nagusien aginduen zain. Urbanizazioaren ordena nahiz txukuntasunak ez du, inolaz ere, Arbilgo erdigune zikin eta zarata-tsuaaren antzik. Hango bazar handiaren galeri labirintoan lan egiten du Hamid Bender 23

urteko gazteak. Lau urte eman ditu jada bere postuan, Irandik ekartzen dioten arropa saltzen.

– Ilusio handiz bozkatu nuen 2005ean, lehendabiziko aldia zen –gogoratu du Bende-rrek–, Barzani miresten nuen. Urte asko eman zituen mendietan peshmergekin (gerlari kurduak), Saddamen kontra borrokatzen. Denok miresten genuen–. Hau Arbildarren artean sentimendu zabaldua bazen ere, Barzaniren alderdiak “badaezpadako” neurri batzuk hartu zituen bozketa egunaren bezperan. Hautes-kundeen aurreko bi egunetan argi indarra 24 orduz jarraian izan genuen. Bozkatu eta hurrengo egunean ohiko zazpi orduekin konformatu behar izan genuen. Atzo, ordea, 4



Zapata garbitzailea, Arbilgo harresia atzean duela.

baino ez ziren izan –damu da Bender–. Gure itxaropenak argiarekin bat itzali dira bi urteotan. Funtsean, egoerak okerrera egin du, baina ez denontzat. Ikusi al dituzu 4x4 horiek guztiak? Bakoitzak 40.000 dolar balio ditu. Non-dik ateratzen da diru hori?

Egia da. Ugari dira luxuzko autoak Kurdistango kaleetan. Baina ugariago zapatak garbitzen dituzten umeak, limosna eskatzen duten amonak, edota kale erdian edozein huskeri saltzen duten adin ertaineko gizonak: kobrezko kableak edota kremailetarik ez duen maleta, esaterako. Eta txiro nahiz aberats horien guztien artean, Barzani liderraren irudia, kakiz jantzita eta durban-te gorria buruan: toki publiko eta pribatuetan; etxe, denda, taberna, bazar, autobus eta taxien barruetan. Baita kanpoaldean ere.

– Saddamen garaiko akats berdinak errepikatzen ari gara, nortasunaren gurtzatik hasita. Laster “Kurdistan” ez, “Barzanistan” deitu beharko diogu gure eskualdeari –kexu da Dawan B., unibertsitateko irakaslea Dahuk-en–. Massud Barzani Kurdistan eskualdeko presidentea da, baina erabaki “potoloak” lehen ministroak hartzen ditu; bere iloba den Nijirwan Barzanik. Bestalde, zerbitzu sekretuko

burua Barzaniren semeetako bat da, Masrou; eta haren anaia, Indar Berezietakoa...

Dawanek salatutako nepotismoa nahikoa agerikoa ez eta Barzani nahiz Talabaniren senideek telekomunikazio, eraikuntza eta merkataritza esparruen monopolioa dute. Gauzak honela, hierarkia- ren behealdean eseri da gober- nuko bi familiokin kontakturik ez duen oro.

– Dirua kudeatzen duen eli- tea sortu da, “gorenko kasta” bat –dio Dawanek–, baina kulpa herritarrona da: ez dago erreak- ziorik, begiak ixtea nahiago dugu. Oraindik tribala den gizar- te baten ohiko joerak dira hauek.

Nola esan betiko liderrari oker dagoela? Bidez- koa al da horrelakorik? Jendeari gogorarazi behar zaio alderdiak herriaren alde lan egin behar duela, eta ez alderantziz.

“Nola esan liderrari oker dagoela?
Oraindik tribala den gizarte baten joera
da. Jendeari gogorarazi behar zaio
alderdiak herriaren alde lan egin behar
duela, ez alderantziz”

DAWAN, DAHUK-EKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Welcome to real Kurdistan

Eskualdeko hego-ekialdean dago Sulaimanija, Jalal Talabaniren feudo historikoa. Askok diote Irakeko Kurdistango hiririk aurrerakoiena dela; aldaketak, haize berriak, hemendik sartzen direla. Hiriburutik ordubete eskasera, PUKak kontrolatutako *checkpoint*-ak nazioarteko muga dirudi. Bertako peshmergek bandera kurdua

sorbaldan josita badute ere, uniformeak eta intsigniak desberdinak dira. Euretako batek “Welcome to real Kurdistan” (ongi etorri benetako Kurdistanera) batez agurtu nau, baita PUKeko telefono operadoreak ere, nire sakelakoaren bidez. Orain arteko deiak Barzaniren semearen konpainiak kudeatu ditu, zerbitzu sekretuko buru ere baden harenak. Egia esan, nekez topa liteke telefona “pintxatzeko” bera baino pertsona egokiagorik.

Sulaimanija hiriburuan atentzioa ematen dute kaleko zuhaitzek, ederki zaindutako parkeek, edota trafikoa bideratzen duten poliziek, besteak beste. Arbil edo Dahuken aldean, Suitzako hiria dirudi Sulaimanijak. Baina agian aldaketarik deigarriena bertako liderraren presentzia urria da. Apenas aurki daiteke Talabaniren irudirik hemengo kaleetan, eta ageri den gutxietan zibilez jantzita dago, gorbatz, eta durbanterik gabe. Ez dirudi Kurdistango hego-ekialdeari “Talabaniistan” izengoitia egoki zaionik; itxuraz ez, behintzat. Baina Sulaimanija lur-espekulazioaren adibide gordinena da, etxebizitzaren prezioa mendebaldeko Europako mailakoa izateraino. Gaur udalaren lurra dena, bihar pribatua izan daiteke erraz. Dekretu xume bat baino ez da behar: igorlea, PUKeko den Sulaimanijako Gobernua; onuraduna, PUKeko den *Nizar* erakuntza enpresa.

Honelako praktikek eta eraikuntza, edo, hobeto esanda, “berreraikuntza”ren boomak jasangaitz bilakatu dute eguneroko bizitza, hortik hiri-erdiguneko kanpin-dendak. Hamabi egun daramatzate Sarhad, Ziruan, Eriwan, Zamal eta beste dozena bat hiritarrek kalean lo egiten, Sulaimanija Palace hotelaren eta gobernuko finantza-egoitzaren artean, hain justu.

– Alderdikide ez garenok jai dugu Kurdistanen; ez lanik, ez dirurik, ez etxerik... –kexu da Sarhad. 25 urteko gazteak duela bi urte bukatu zituen ekonomia ikasketak Sulaimanijako Unibertsitatean, baina lan munduko atek irmoki itxita dauzka. Bere gurasoak ez dira inoiz PUKeko kideak izan, ezta bera ere—. Kanpamentuan elkartu garenon artean kristauak, yezidiak, musulmanak, marxistak... Deneztarik dago –jarraitu du—. Ez gara alderdi bat, berdintasuna eta demokrazia aldarrikatzen duen taldea baizik.



Goitik behera: barazki postuak Sulaimanijako Kawa kale nagusian; Sarhad eta bere kideak kanpamentuan; eta Sulaimanijako ikuspegi orokorra.

Kirkukeko erreferendumaren zain

Kirkuk Irakeko laugarren hiri handiena da eta Bagdadetik 250 kilometrora dago. 5.000 urteko ondare artistikoa duen arren, bere aberastasuna petrolioan datza. Izan ere, Irakeko erreserba handienetakoen gainean dago, eta Irak iparreko petrolio industriaren gune nagusia da. Beraz, Dallasekin senidetuta dagoela jakiteak ez du inor ustekabeen harrapatuko.

80ko hamarkadan, Saddamen erregimenak hamar milaka kurdu, turkmeno eta asiriar biztanle kanporatu eta beste hainbeste arabiar eraman zituen horien orde, gehienak herrialde hegoaldeko xiita txiroak. "Nazio Zuzenketa" izena eman zion Baath alderdiak "arabiaritze" prozesu honi.

Baina Saddamen gainbehera 2003an gertatu zenetik, prozesua erabat inbertitu da, eta kanporatutakoek etxera bueltako bidea hartu dute. Populazio mugimenduak ikaragarriak izan ziren arren, Kirkukeko biztanle gehienak kurduak dira oraindik ere. Bagdadeko kontrolpean jarraitu edo Kurdistango eskualdean integratzea erabakiko zuen erreferenduma aurtengo azaroan burutzeko zen baina hauteskunde-zentsua egiteko zailtasunek eta biolentzia giroak kontsulta atzeratu dute.

Zoritzarrez, etengabeak dira Moqtada al Sadr eta Al Mahdiren milizia xiiten erasoak, militar nahiz zibilen kontra.



Bestalde, Ankararak operazio militarrek egitearekin mehatxatu du Kirkukeko erreferenduma burutzekotan. Bertako turkiar jatorriko biztanleriaren interesak defendatzea du aitzakia, baina nazioarteko analistek pisuzko beste arrazoi bat antzeman dute: Kirkukeko petrolioaren etekinek aberastasun handia ekar diezaiokete Irakeko Kurdistango eskualdeari, Turkiako milioika kurdu txiroen erreferentzi bihurtuz aldi berean.



Manifestatzaileekin bat dator Assos Hardi. *Awene* egunkari independentearen erredaktore burua da, eta makina bat artikulu argitaratu du gobernuko ustelkeriaren gainean:

– Ustelkeria eta demokrazia eza begi-bistakoak dira, argi dugu hau denok. Dena den, funtsezko aldaketa bat gauzatu da azken urteotan –dio Hardik–. Kanpin dendetan dauden hiritar horiek hamabi egun eman dituzte jada, gobernuaren eraikin baten aurrean gainera. Duela gutxi arte pentsaezina zen horrelako ekintza

Ekzerretik eskuinera: Asos Hardi, *Awene* egunkariko erredaktore burua; Hamid Bender bere arropa postuan; eta Mahmud Ido, Yezidi Azaotako ministroa.

bat burutzea, poliziak berehala atxilotuko zuen protestan ari zen edonor. Egun, ordea, inork ez die ezer esan, ez dute mehatxurik jaso; ezta niri ere idatzi ditudan salaketa-artikuluengatik. Trantsizio une batean gaude, baina demokraziaren lehen izpiak jaso ditugu jada. Denbora behar dugu, besterik ez. ■

<http://www.argia.com/kurdistan> kanalean, Kurdistanera egindako bidaiaren egunerokoa eta argazki bilduma.

Adnan Mufti, Kurdistango Parlamentuko presidentea “Ez dago bere buruaren jabe izan nahi ez duen naziorik”

1991n piztu zen Saddam Husseinen kontrako matxinada handia. AEBek 36 paraleloa ez zeharkatzeko esan zioten Bagdadi, eta horri esker Irakeko Kurdistanek lehen hauteskundeetara deitu zuen urte berean. Funtsean, Kurdistango parlamentuak 1992an ekin zion bere ibilbideari.

Irakeko Kurdistango Nazio Asanblada bildu aurretik, PUKeko alderdikide eta parlamentuko presidentea den Adnan Muftik bere bulegoan hartu gaitu. Parlamentua, ustelkeria, Irakeko gerra eta Kurdistango etorkizuna izan ditugu mintzagai.

KDP eta PUKaren arteko gerra eta gero, benetan harrigarria da elkarrekin ikustea alderdi biak hemen.

Lau urteko gerra lazgarria izan zen hura, bai. 1998an, Washingtingo Ituna sinatu eta gero, parlamentuan elkartu ginen berriz. Gerrak iraun zuen urte horietan PUKeko kideok ez genuen parlamentua zapaldu. Zorionez, oso harreman ona dugu orain eta horri eskerrak osatu dugu koalizio gobernua.

Ez al dago aurreko gerra-egoera horretara bueltatzeko arriskurik?

Puntu asko adostu ditugu bi alderdion artean. Ministro kopuru bera dugu biok, eta eskualdeko presidente KDPkoa baldin bada, parlamentuak PUKeko behar du izan, eta alderantziz. Hurrengo hauteskundeak bi urte barru dira, baina Irakeko egoera larria kontuan hartuz, bi alderdiok 2015 arte elkarrekin gobernatzea adostu dugu.

Ustelkeria al da orain eskualdeko arazo nagusietako bat?

Tamalez, oso eskarmentu urria dugu administrazio alorrean. Ez dut ukatuko ustelkeria existitzen denik, baina asko exajeratu dela ere iruditzen zait. Ustelkeria dagoela frogatzen duen ikerketa serio bat iritsiko balitz, orduan bai, hartuko genituzke horren kontrako neurriak.

Badirudi koalizioak tropak Iraketik erretiratzeko ari direla. Egoera konpontzen lagunduko du honek?

Ez dut uste erretiratzeko asmoa dutenik. Eta hala balitz, ez litzateke ona ez irakiarrentzat ezta kurduontzat ere. Denbora luzez beharko ditugu. Saddam kanporatzen lagundu ziguten 1991n, eta orain herrialdea berreraikitzeke ezinbestekoak dira. Euren laguntza jaso izan ez bagenu, orain ez genuke ez parlamenturik, ez hauteskunderik... ez ezer!

Herrialde barruan ez ezik, kanpotik datozen mehatxuei aurre egiteko ere behar ditugu. Al Qaeda eta beste talde terrorista batzuk Siria eta Irango mugetatik sartzen ari dira. Bestalde, Ankara eta Teheranek bonbardaketak burutzen dituzte maiz gure ipar eta ekialdeko mugetan. Kurduak bizilagun txarrak izan ditugu beti, nahikoa arrazoi da hori edozein laguntzaz baliatzeko.

Nolanahi, ba al dago Irakeko egoera konpontzerik?

Ez dago botere osoa duen gutxiengo baten menpe bizitzerik. Irtenbide bakarra hiru federazioren arteko koalizioa da: xiitak hegoaldean, sunitak erdialdean, eta kurduok iparraldean. Dena den, kurduontzat berreraikuntza da garrantzitsuena. *De facto* herrialde bat dugu eta gogor ari gara lanean.



Estatu federal hori azken urratsa al da erabateko independentziarentzat?

Ez dago munduan bere buruaren jabe izan nahi ez duen naziorik. Kurduok amets egin dugu beti gure estatua izatearekin. Baina politikaria naizen aldetik, ekonomia sustatzeari ematen diot lehentasuna orain. Bakarrik bizirauteko bermerik ez badago, ezin dugu independentzia aldarrikatu. Bihotzak independentzia eskatzen dit; buruak, aldiz, Irakeko federazioko kide izatea.

Kurdistango estatu federal horretan Kirkuk legoke?

Jakina! Kirkukeko lurra eta jendea kurdua izan da beti. Saddamek milaka kurdu kanporatu eta arabiarrekin ordezkatu zituen. Orain Kirkuken dauden arabiarrek alde egin beharko lukete, baina ez indarra erabiliz. Giza eskubideak errespetatu nahi ditugu, horregatik sortu dugu hori dena

bideratzeko komisio berezi bat. Arabiarren gehiengoa joateko prest dago, baina diru laguntzak eskatzen dituzte horretarako. Bagdad eta Arbilen arteko kolaborazioa ezinbestekoa izango da populazio mugimendu hori era baketsuan burutzeko

Dena den, ez dirudi Kirkukeko korapiloa epe motzean askatuko denik.

Erreferenduma urte honen bukaerarako aurreikusten zen, baina ezingo da epea bete. Eraso terrorista ugari jasaten ari den eskualdea da, baina ziur egon erreferenduma noizbait burutuko dela. Gehiengoa Bagdadeko kontrolpean bizitzeko prest agertzen bada, ez dugu horretarako oztoporik jarriko. Hala ere, eta lehen aipatu bezala, biztanle gehienak kurduak dira, eta ziur gaude Kurdistan barruan bizi nahi dutela.

Kurdistango Parlamentuak 111 eserleku ditu egun. Horietatik KDPak nahiz PUKak 39na dituzte. Bi alderdi islamiarrek 15 dituzte, 5 asiriarrak, 4 turkmenoek, 3 komunistek, 2 sozialistek eta azkena alderdi txikien koalizio batek. Parlamentuko 111 kideetatik 29 emakumeak dira.

